

## BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

### 4840

*EBAZPENA, 2018ko abuztuaren 3koa, Ingurumeneko sailburuordearena, lagun egiteko animalientzako pentsu-fabrikari ingurumeneko baimen integratua ematen zaiona, Elmubas Ibérica SLk sustatua Azpeitiko (Gipuzkoa) udalerrian (Gerratziki 6).*

#### AURREKARIAK

2016ko martxoaren 9an, Elmubas Ibérica SL enpresak orduko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumen-baimen integratua emateko eskatu zion, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Azpeitiko udalerrian duen lagun egiteko animalientzako pentsu-fabrikarako.

Era berean, jarduera hirigintzarekin bateragarria zela egiaztatzen zuen Azpeitiko Udalaren 2015eko abenduaren 23ko txostena aurkeztu zuen.

Aurkeztutako agiriak nahikoak zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordearen 2016ko urriaren 27ko Ebazpenaren bidez erabaki zen Elmubas Ibérica SLk sustatutako proiektua 30 egun balioduneko epean jendaurrean jartzea, egoki irizten diren alegazioak aurkezteko. Horretarako, ebazpen hori Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean 2016ko azaroaren 11n eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2016ko azaroaren 15ean argitaratu zen.

Jendurreko informazioaren izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu zen.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoari jarraituz –abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartua–, 2017ko urtarrilaren 9an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak txostena eskatu zien Azpeitiko Udalari, Gipuzkoako Urak erakundeari, URA Uraren Euskal Agentziari eta Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari, eta Gipuzkoako Osasun Publiko eta Adikzioen Zuzendariordetzari.

2018ko uztailaren 12an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, Elmubas Ibérica SLren esku utzi zen espediente osoa.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 1. artikuluan xedatutakoaren arabera –abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartua–, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruen kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila handia helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Baimen honetan, instalazioan egiten diren aipatutako testu bateginaren 1. eranskinean zerrendatutako jardueraz gain, barne hartzen dira instalazioa lege horren aplikazio-eremuan sartzea eragin zuen jardueraren kokalekuan egiten diren jarduera guztiak, jarduera horrekin teknikoki

lotuta dauden eta sortuko diren isurietan eta kutsaduran ondorioak izan ditzaketen guztiak, nahiz eta jarduera horietako batzuk eranskinean jasota ez egon.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 9. artikuluan xedatzen dena betez, ingurumen-baimen integratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueretako edozein garatzen duten instalazioak ustiatzeko. 11. artikulua arabera, baimen honen oinarritzko helburua baldintzak ezartzea da, araua berau aplikatu daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten administrazio publikoen artean koordinatuta egongo den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzeko. Era berean, indarrean dagoen araudian jasotako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Elmubas Ibérica SL enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: saneamendu-sare orokorrera isurtzeko baimena, eta, ingurumen-izaerako beste zehaztapen batzuen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzorua kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dutela egiaztatu da, aginduzko txostenak igorri.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 29. artikuluan xedatutakoarekin bat, jarduera deseroso, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak egin ahal izateko administrazio eskudunek herritarren ekintzen gainean esku hartzeko dituzten administrazio-bitartekoak ordezkatzeko ditu ingurumen-baimen integratua emateko prozedurak. Ondore horietarako, ingurumen-baimen integratua loteslea izango da tokiko agintarientzat, baldin eta jarduerak egitea ukatzeko edo zuzenketa-neurriak ezartzeko bada; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdi orori dagokionez ere. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 39. artikulua xedatzen duenez, neurri guztiak hartuko dira lizentziak eta baimenak eskuratzera bideratutako administrazio-prozedurak koordinatzeko. Adierazitako aginduak aplikatuz, Elmubas Ibérica SLren ingurumen-baimen integratua emateko prozeduran sartuta daude Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapide guztiak.

Azkenik, adierazi behar da ebazpen honek teknika erabilgarri onenak eta aplikatzekoa den sektoreko legeriak zehaztutako neurriak eta baldintzak kontuan izan dituela, bai instalazioak gehienez igor ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak zehazteko, bai, ingurumen osoa ahalik eta gehien babesteko helburuz, instalazioaren ustiapenari ezarriko zaizkion bestelako baldintzak erabakitzeko. Zehazki, teknika erabilgarri onenak jasotzen dituen Europako Batzordearen 2006ko abuztuko BREF txostenaren edukia kontuan hartu da (Reference Document on Best Available Techniques in the Food, Drink and Milk Industries).

Azaldu dugun guztia aintzat hartuta, espedientean jaso diren txosten guztiak aztertutakoan ebazpen-proposamena egin zen, eta bertan jaso ziren Elmubas Ibérica SLk sustatutako proiektuari aplikatu beharreko baldintzak.

Azaldutakoarekin bat, goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan jasotzen den entzuzaldi-izapidea bete da.

Aintzat hartu da organo honek eskumena duela ingurumen-baimen integratu hau emateko, hala xedatuta baitago Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuan.

Honako hauek ikusi dira: sailburuordetza honen uztailaren 11ko Ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko ingurumena babestekoa; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina –abenduaen 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartua–; urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua, Industriako Isurpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena; abenduaren 9ko 21/2013 Legea, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; uztailaren 28ko 22/2011 Legea, hondakin eta lurzoru kutsatuena; apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta aplikatu beharreko gainerako arauak. Ondorioz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Azpeitiko udalerriko (Gipuzkoa) Gerratziki kaleko 6. zenbakian eta IFK: B-20104055 duen Elmubas Ibérica SL enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, lagun egiteko animalien pentsu-fabrikarako, ebazpen honen bigarren apartatuan ezarritako baldintzekin.

Jarduera jasota dago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 1. eranskineko kategoria honetan:

«9.1.b) Elikagaiak edo pentsuak fabrikatzea xede duten honako lehengai hauen –aurrez tratatuak edo tratatu gabeak izan daitezke– tratamendua eta eraldaketa (ontziratze hutsa izan ezik):

iii) Animalia- eta landare-lehengaiak soilik, biak konbinatzen dituzten produktuetan zein bereizita, gutxienez eguneko produktu bukatuen tona kantitate hau ekoizteko gaitasunarekin:

– 75, A 10 edo gehiago bada, edo

–  $[300 - (22,5 \times A)]$  beste edozer kasutan,

non "A" produktu amaituak ekoizteko gaitasunaren animalia-materia zatia den (pisuaren portzentajea).

Ontzia ez da produktuaren amaierako pisuaren barruan sartuko.

Azpiatal hau ez da aplikagarria izango lehengai esnea baino ez denean».

Lagun egiteko animalientzako pentsuen barnean, Elmubas Ibérica SL enpresa pentsu lehorrean dago espezializatuta (dry petfood). Instalazioa Landeta industrialdean dago kokatuta, eta, guztira, 24.000 m<sup>2</sup> ditu. Horietatik, 17.600 m<sup>2</sup> estalpean daude, eraikin hauetan banatuta:

– Zubiola eraikina: 3.782 m<sup>2</sup>

– Bastida-Elmubas eraikina: 5.811 m<sup>2</sup>

– Jateko eraikina: 6.000 m<sup>2</sup>

– Antzibar eraikina: 2.000 m<sup>2</sup>

Hauek dira lehengai erabilienak: zerealak eta horien eratorriak (105.000 tona/urte), haziak (10.500 tona/urte) eta beste landare-produktu batzuk (3.500 tona/urte). Proteina eraldatuak (75.000 tona/urte) eta lurreko zein itsasoko animalien koipeak (8.000 tona/urte) ere erabiltzen dira. Horiek 3. kategoriakoak dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urriaren 21eko 1069/2009 (EE) Erregelamenduaren arabera. Erregelamendu horrek ezartzen ditu giza kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuei eta produktu eratorriei aplikatzekoak zaizkien arau sanitarioak, animalia-azpiproduktuei buruzko 1774/2002 (EE) Erregelamendua indargabetzeaz gain. Lehengaiak soltean jasotzen dira, kamioietan ekarrita; atakatan jarri eta siloetan biltegitartzen dira, bereizita (Bastida-Elmubas eraikina). Beste lehengai batzuk, tartean, olioak, koipeak eta lurrinak, askotariko formatuetan jasotzen dira.

Ondoren, biltegitratutako lehengaiak dosiak prestatzeko baskuletatik igarotzen da. Horiek Bastida eta Elmubas eraikinetan daude. Katalogoko produktu prestatu bakoitzak behar duen nahastea prestatzen da horietan. Produktu-dosiek, redler sorta baten bitartez (zinta eroaleak), metalen kontrol-sistema zeharkatzen dute, gorputz arrotzak kentzeko. Handik hirugarren solairuko siloetara igarotzen dira, eta tarteko produktua biltegitratuta geratzen da.

Nahaste-dosiek aurre-ehotzearen eta ehotzearen prozesuak zeharkatzen dituzte, eta redlerrek dagozkien siloetara eramaten dituzte; estrusio-makinen gainean daude siloak. Hiru estrusio-makina daude Bastida-Elmubas eraikinean: «Txikia» (4.000 kg/h), BIKI (10.000 kg/h) eta IBAI (18.000 kg/h). Estrusio-makina bakoitzak bina elikadura-silo ditu atxikita, eta lehorgailu zein hozkailu bana (txikiak bi lehorgailu ditu). Estrusio-prozesuan ur-lurruna aplikatzen zaio nahasteari, egosi eta nahi den forma emateko. Ondoren, produktua lehortu eta berriz koipeztatzen da (lurrin eta bitamina termolabilak gehitzeaz gain), betiere katalogoko erreferentziari dagozkion bereizgarrien arabera. Azkenik, produktua hoztu egiten da.

Lehortu, koipeztatu eta hoztu ondoren, produktu amaitua siloetan biltegitratzen da, eraikin batean baino gehiagotan ontziratzeke. Ontziak bete ahala inprimatzen dira. Ondoren, eraikin batean baino gehiagotan biltegitratzen dira, bezeroari bidali arte.

Prozesu osoa sistema informatiko baten kontrolpean egiten da.

Gutxi gorabehera, urtean 200.000 tona pentsu ekoizten dira; gehienak azken kontsumitzailearentzako ontziratzen dira. Ekoizpenaren % 10 inguru esportatu egiten da, produktu erdi-elaboratu gisa, hirugarrenek ontzira dezaten.

Ur-hornidurari dagokionez, Bastida eraikinean kokatutako lurpeko hargune bat du. Ura-Ura-ren Euskal Agentziak hala baimenduta, urtean 27.000 m<sup>3</sup> ur har ditzake. Alderantzizko osmosi bidez araztu, eta galdaretan lurruna ekoizteko erabiltzen da. Sareko ura erabiltzen da makinak eta komunak garbitzeko.

Lantokiaren energia-kontsumoa 16.500 kWh energia elektrikokoa eta 48.000 m<sup>3</sup> gas naturalekoa da. Gasolioa orgatila jasotzaileen erregai gisa soilik erabiltzen da. Galdarak ekoizpen-prozesuan sortzen duen lurruna enpresaren berokuntza-sisteman baliatzen da.

Atmosfera-igorpen nagusiak hauek dira: lehengaiak ehotzean eta nahastean sortutako partikulak eta estrusio-prozesuan ur-lurruna ematen duten bi gas-galdarek sortutako errekontza-gasak –SINCAL galdara nagusia, 4.400 MW-eko bero-potentzia; YGNIS larrialdietarako galda, 1.498 MW-koa–.

Estrusio-makinak usain-iturri handia dira. Igorpenak plasmazko gailu ez-termiko batekin bildu eta tratatzen dira.

Hondakin-urak (ur sanitarioak eta elikagai-makinen garbiketakoak) hiri-isuritzat hartzen direnez Gipuzkoako Uren biltodira bideratzen dira. Euri-urak Ibaieder ibaira isurtzen dira. Alderantziko osmositik eratorritako errefusa, kaltzio askokoa denez, produktuari gehitzen zaio, eta ez da isurtzen.

Prozesu nagusiak ez du hondakin arriskutsurik sortzen; horrelakoak, zerbitzu orokorretan sortzen dira, eta, zehazki, urtean 2 tona baino gutxiago dira. Elikagai-industria denez, makinak koipe jangarriekin koipeztatzen dira. Atmosfera-igorpenen arazte-sisteman jasotako partikulen zati bat ekoizpen-prozesura birbideratzen dira; hala, hondakinen sorkuntza ekiditen da. Hondakin arrisku-gabeak, batik bat, hauek dira: bilgarriak, lehengaien hondarrak eta txatarra.

Lagun egiteko animalientzako pentsuak fabrikatzeko jarduketa jasota dago Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urriaren 21eko 1069/2009 (EE) Erregelamenduan.

Elmubas Ibérica SLren jarduketa nagusia, «Lagun egiteko animalientzako elikadura-produktuak fabrikatzea» (1993ko EJSN, 1. ber. = 15.72; 2009ko EJSN = 10.92), ez da lurzorua kutsa dezaketen jarduketetarik bat, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuaren arabera. Alabaina, gai arriskutsuen 10 tona baino gehiago erabiltzen dira urtean (gasolioa, azido ortofosforikoa, antioxidatzaileak, antifungikoak, etab.). Eraikin berria (Zubiola) bakarrik dago lurzoru inbentariatu batean kokatuta, lehen han egin baitira lurzorua kutsa lezaketen jarduerak. Bestalde, Antzibar eraikinaren alboan, etxola baten barnean dago orga jasotzaileentzako gasolioaren andela (10.000 l-koa).

Elmubas Ibérica SLren jardunean aplikatzen dira teknika erabilgarri onenak, Europako Batzordearen 2006ko abuztuko BREF txostenean jasota daudenak (Reference Document on Best Available Techniques in the Food, Drink and Milk Industries).

- 5.1.9.– Lehengai lehorren garraioa.
- 5.1.11.– Outputak bereiztea, berrerabilera, berreskuratzea, birziklatzea eta deuseztatzea optimizatzeko.
- 5.1.4.9.2.– Solteko lehengaiak hartzea.
- 5.1.5.2.– Gasak, usainak eta hautsak iturburuan kanalizatzea, tratamendu-sistemetara bideratuta.
- 5.1.2.5.– Usainen tratamendu-teknikak aplikatzea, prozesuan txertatutako teknika erabilgarri onenek ez dituztenean eragozpen horiek desagerrarazten.

Bigarrena.– Elmubas Ibérica SL enpresak Azpeitiko udalerrian (Gipuzkoa) sustatutako lagun egiteko animalientzako pentsu-fabrika ustiatzeko, baldintza eta eskakizun hauek ezartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik badago, Elmubas Ibérica SL enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo apartatuetan ezarritakoari jarraituz, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Elmubas Ibérica SLren lantegiaren ustiapenean bete beharreko baldintzak dira atmosferara egingo diren isurketek ez gainditzea ebazpen honetan ezarritako balioak, eta Ingurumen Sailburuordetzak jarraibide teknikoetan ezarritako baldintza teknikoak betetzea.

Prozesuan zehar atmosferara igortzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor horretatik salbuetsi daitezke igorpen konfinatu gabeak, baldin eta horiek biltzea ez bada teknikoki edo ekonomikoki bideragarria, edota egiaztatzen bada ingurunean kalte urria eragiten dutela.

Neurri egokiak hartuko dira ustekabeko igorpenik ez egiteko, eta haien efluenteez giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezken. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, instalazio horiek martxan ez dauden edo erabilgarri ez dauden aldien iraupena ahalik eta gehien murriztuko da.

Proiektuan atmosfera-kutsaduraren inguruan aipatutako neurriak beti beteko dira; bereziki, hauts-igorpenak saihesteko direnak (bideak garbitzea, adibidez).

Instalazioaren titularrek bete beharko dituzte Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzeko abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuak 5. artikuluan jasotzen dituen betebeharrak.

Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte honako elementu hauek: sekzioa, neurketa-gunea, laginketa-gunea, neurketa-por-tua, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

Organo honek foku berri bat baimendu ondoren, abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolerako erakundeak egindako igorpenen lehen kontrol-txostena bidali beharko da. Nolanahi ere, Ingurumen Sailburuordetzari epe hori luzatzeko eskatu ahal izango zaio, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

B.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Lagun egiteko animalien pentsua fabrikatzeko Elmubas Ibérica SLren instalazioan atmosfera kutsa dezaketen jarduketan katalogoak (100/2011 eta 1042/2017 Errege Dekretuek onartuta) barne hartutako jarduketa hauek egingo dira:

2018ko urriaren 4a, osteguna

Jarduera	Taldea	Kodea
Egosteko, esterilizatzeko edo antzeko eragiketetan ukipen zuzenik ez duten elikagaien industriako errekuntza-ekipoak, 2,3 megawatteko potentzia termiko izenduna edo handiagoa dutenak.	B	03 02 05 06
Animalia-jatorriko pentsuak edo irinak fabrikatzea	A	04 06 05 04
Landare-jatorriko pentsuak edo irinak fabrikatzea	B	04 06 05 08
Metalezko gainazalak garbitzea (koiepegabetzea barne), disolbatzaileen urteko kontsumoa 2 tonakoa edo txikiagoa izanik.	-	06 02 01 04
Inprentak: offset, argitalpenerako ez den errotografia, flexografia, inprimaketa serigrafiko birakaria, disolbatzaileen urteko kontsumoa 15 tonakoa edo txikiagoa den plastifikatzea edo bernizatzea.	-	06 04 03 04

Instalazioan foku kanalizatu hauek daude:

Fokua	Foku-kodea	Fokua izena	Garaiera (m)	Sekzioa (m <sup>2</sup> ) / Diametroa (m)	Katalogazioa	Jarduteko araubidea
1	2000078877-01	Galdara nagusia (SINCAL)	16,5 m	0,5 m	03 02 05 06 B	Foku sistematikoa
2	2000078877-01	Lehorgailuen tximinia	33,5 m	1,70 m	04 06 05 05 B	Foku sistematikoa
3	2000078877-03	Eho aurretik erauztea	20,59 m	0,8 m	04 06 17 05 B	Foku sistematikoa
4	2000078877-04	Errotetik erauztea 1	20,59 m	0,8 m	04 06 17 05 B	Foku sistematikoa
5	2000078877-05	Errotetik erauztea 2	20,59 m	0,8 m	04 06 17 05 B	Foku sistematikoa
6	2000078877-06	Errotetik erauztea 3	20,59 m	0,8 m	04 06 17 05 B	Foku sistematikoa
7	2000078877-07	Errotetik erauztea 4	20,59 m	0,8 m	04 06 17 05 B	Foku sistematikoa
8	2000078877-08	Estrusio-makina txikiaren hozkailua	20,59 m	1 m	04 06 05 05 B	Foku sistematikoa
9	2000078877-09	Estrusio-makina ertainaren (Biki) hozkailua 1	20,59 m	1 m	04 06 05 05 B	Foku sistematikoa
10	2000078877-10	Estrusio-makina ertainaren (Biki) hozkailua 2	20,59 m	1 m	04 06 05 05 B	Foku sistematikoa
11	2000078877-11	Estrusio-makina handiaren (Ibai) hozkailua 1	20,59 m	1 m	04 06 05 05 B	Foku sistematikoa
12	2000078877-12	Estrusio-makina handiaren (Ibai) hozkailua 2	20,59 m	1 m	04 06 05 05 B	Foku sistematikoa
13D	2000078877-13D	Larrialdietarako galdara (YGNIS)	20,59 m	0,5 m	03 02 05 07 C	Foku ez-sistematikoa
14	2000078877-14	Haizatze koipeduna	20,59 m	1 m	04 06 05 05 B	Foku sistematikoa

Foku ez-sistematiko horietariko bat urtean batez beste hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzera pasako balitz eta aldi bakoitzak ordubete baino gehiago iraungo balu, edo, maiztasuna edozein dela ere, igorpenen iraupena orokorrean hartuta lantegiaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bost baino handiagoa bada, igorpen-foku sistematiko gisa araupetu beharko da.

Urte jakin batean foku sistematiko batek foku ez-sistematiko batek bezala funtzionatzen badu, ez da foku horren gaineko kontrolik egin behariko urte horretan. Ondoko urtean egin behariko da, baldin eta kontrola salbuesteko baldintzek jarraitzen ez badute. Ingurumena zaintzeko dagokion programan justifikatu behariko da inguruabar hori.

1. eta 13D fokuei dagozkien ekipoak errekontza-instalazio ertainak dira eta 2017ko abenduaren 22ko 1042/2017 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuak barnean hartzen ditu. Errege Dekretu horrek errekontza-instalazio ertainetatik datozen agente kutsatzaile zehatz batzuen atmosferarako igorpenak mugatzen ditu eta airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroren 15eko 34/2007 Legearen IV. eranskina eguneratzen du. Horrenbestez, 1042/2018 Errege Dekretuan ezarritakoa bete behariko du, erregistroari eta gehieneko igorpen-balioak betetzeari dagokienez, arauan bertan adierazitako epeetan.

#### B.1.3.– Igorpenen muga-balioak.

Igorpen atmosferikoek igortzeko muga-balio hauek ez gainditzeko moduan ustiatuko da instalazioa:

Fokua	Fokua izena	Substantziak	Igorpenen muga-balioak
1	Galdara nagusia (SINCAL) 2024ko abenduaren 31ra arte.	CO	624 mg/Nm <sup>3</sup>
		NO <sub>x</sub> (NO <sub>2</sub> baliokidean)	615 mg/Nm <sup>3</sup>
	Galdara nagusia (SINCAL) 2025eko urtarrilaren 1etik.	NO <sub>x</sub> (NO <sub>2</sub> baliokidean)	200 mg/Nm <sup>3</sup>
2	Lehorgailuen/estrusio-makinen tximinia	Usainak	% 75eko eraginkortasuna, plasma ez termiko bidezko sisteman
3	Eho aurretik erauztea	Partikulak guztira	20 mg/Nm <sup>3</sup>
4	Errotetatik erauztea 1		
5	Errotetatik erauztea 2		
6	Errotetatik erauztea 3		
7	Errotetatik erauztea 4		
13D	Larrialdietarako galdara (YGNIS) 2029ko abenduaren 31ra arte.	CO	624 mg/Nm <sup>3</sup>
		NO <sub>x</sub> (NO <sub>2</sub> baliokidean)	615 mg/Nm <sup>3</sup>
	Larrialdietarako galdara (YGNIS) 2030eko urtarrilaren 1etik.	NO <sub>x</sub> (NO <sub>2</sub> baliokidean)	200 mg/Nm <sup>3</sup>

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273,15 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa, eta gas lehorra.

Igorpen-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen duena beteko da.

#### B.1.4.– Gasak hartu eta kanporatzeko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo bigarren apartatuko B.1.2 azpi-apartatuan ezarritako goreneko kotatik behera. Sekzioek eta lagin-puntuen kokapenak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduaren bidez argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa bete behariko dute.



Zehazki, laginak hartzeko aurreikusita dauden zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoak bete beharko dira.

Igorpen lausoak minimizatzeko helburuarekin, jarioak antzemateko ekipoak erabiliko dira, ingurumenaren kudeaketa egokia egingo da, eta instalazioa modu egokian diseinatuko da

#### B.1.5.– Usainen inguruko baldintzak.

Ahalik eta usain gutxien jariatzeko moduan ustiatuko da instalazioa. Elmubas Ibérica SL enpresak bere eskabidean aurkeztutako EMBS16A\_01 txosteneko balioak eta ereduak hartuko dira erreferentziazat.

#### B.2.– Isuriak egiteko baldintzak.

B.2.1.– Saneamendu-sarean egindako isurien sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokalekua.

Isuria sortzen duen jarduera mota nagusia: 1092.– Lagun egiteko animaliak elikatzeko produktuen fabrikazioa (EJSN, 2009).

Isurgunea	Isuriaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurgunearen UTM koordenatuak
V1	Ur sanitarioak	Udal-sarea	X: 560667.88 Y: 4780030.27

#### B.2.2.– Saneamendu-sarera isurtzeko gehieneko emariak eta bolumenak.

Orduko puntako emaria	0,69 m <sup>3</sup> /h
Eguneko gehieneko bolumena	16,53 m <sup>3</sup> eguneko
Urteko gehieneko bolumena	3.636,1 m <sup>3</sup> urteko

#### B.2.3.– Saneamendu-sarera isurtzeko muga-balioak.

Saneamendu-sarera egiten diren isurien parametroak Gipuzkoako Ur Partzuergoaren erregelamenduan ezarritakoak izango dira –instalazioak horra egiten ditu isuriak–; hauek dira parametroak, isuri bakoitzerako zehazten diren gehieneko muga-balioekin:

2018ko urriaren 4a, osteguna

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
Gehieneko emaria	Ekoizpen-orduetan batez besteko emariaren hirukoitza baino txikiagoa
Temperatura	45 °C
pH-a	5,5-9,5
Eroankortasuna	5.000 µS cm.
Benetako kolorea	350 unit. Pt/Co
Itxurazko kolorea	1/50 detektaezina disoluzioan
Tentsioaktibo anionikoak	10 mg/l
Solido lodiak	Ez daude
Solido jalkigarriak	20 ml/l
Solido esekiak	600 mg/l
Olioak eta koipeak	100 mg/l
OEB <sub>5</sub>	500 mg/l
OEK	4 aldiz OEB <sub>5</sub> edo, hori ezean, 1.600 mg O <sub>2</sub> /l
N- guztira (organikoa+amoniakala+NO <sub>2</sub> +NO <sub>3</sub> )	75 mg/l (N)
TKN	75 mg/l (N)
N-NO <sub>3</sub>	75 mg/l (N)
N-NH <sub>3</sub>	50 mg/l (N)
P-guztira	15 mg/l (P)
SO <sub>4</sub>	1.000 mg/l
SO <sub>3</sub>	5 mg/l
S=	1 mg/l
CL	1.600 mg/l
Fenolak	5 mg/l
Fe	20 mg/l
Zn	3 mg/l
Cr, guztira	1 mg/l
Cr VI	0,3 mg/l
Cu	1 mg/l
Cd	0,1 mg/l
Ni	2 mg/l
Pb	0,5 mg/l
Hg	0,01 mg/l
As	0,1 mg/l
Ba	10 mg/l
Sn	2 mg/l
Mn	2 mg/l
Ag	0,5 mg/l
Se	0,1 mg/l
Al	20 mg/l
Guztizko Cn-a destilazioan	0,5 mg/l
Cn askeak	0,1 mg/l
Zianatoak	2 mg/l
Kloro askea	0,5 mg/l
Fluoruroak	10 mg/l
Toxikotasuna	25 ekitox/m <sup>3</sup>
AOX	2 mg/l
Hidrokarburoa guztira	10 mg/l

Taula honetako mugak hartzen dira kontuan, egindako saiakuntzari lotutako ziurgabetasuna aintzat hartuz.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Bestela, titularrak tratamendu egokia egin beharko du, aipatutako kalitate-helburuak isuriaren ondorioz urratzen ez direla ziurtatzeko.

#### B.2.4.– Arazteko eta saneamendu-sarera husteko instalazioak.

Arazte-instalazioek edo hondakin-uren zuzenketa-neurriek jarduera hauek izango dituzte, funtsean:

- Ez dago baimenduta norberak bildutakoetatik datozen urak isurtzea.
- Jarduketak ez du kontrol-kutxatilarik eta hainbat hargune ditu.

Kutxatila bat izango da saneamendu-sare orokorreko hargunearen aurretik; kutxatila horrek isuriaren lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango ditu. Kutxatila ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla egiaztatuz gero, Elmubas Ibérica SL enpresak beharrezkoak diren aldaketak egin beharko ditu arazteko instalazioetan, isuriak baimendutako ezaugarrietara egokitzeko, administrazioari jakinarazi ondoren, eta, hala badagokio, baimena aldatzeko eskatuko du.

Kasu honetan, efluenta kontrolatzeko (lineako kontrolak), nahitaezkoa izango da elementu hauek izatea, guztizko kopuruen erregistroarekin:

#### B.2.5.– Ubide publikora egindako isuriak.

Ez dago baimenduta ubide publikora industria-urik nahiz ur sanitariorik isurtzea. Euri-ur garbiak bakarrik onartuko dira Ibaieder ibaian, eta ez dira isuritzat hartuko.

#### B.3.– Instalazioan ekoiztutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakinen kudeaketa Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztaiaren 28ko 22/2011 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikotan ezarritakoaren arabera egingo da, eta, kasuan kasu, hondakinak karakterizatu egin beharko dira beren izaera eta helbururik egokiena zehazteko.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da, eta, hartarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak kasu honetan baino ezingo dira deuseztatu: ezinezkoa izatea horiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik. Beti egiaztatu beharko da hori horrela dela. Birsortzea-berrerabilteza lehenetsiko da balorizatzeke beste edozein modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimendurik badago hondakin zehatz batzuk tratatzeko, lehenetsunez instalazio haietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken helmuga zabortegi baimenduan deuseztatzea dela aurreikusten baldin bada, orduan hondakin horien ezaugarriak zehaztuko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak, Hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenak, xedatutakoari jarraikiz, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak, ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ebazpen honetan jasotakoa, orientagarria da soilik, kon-tuan hartuta jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan (4.d apartatua) ezarritakoa eragotzi gabe, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, kasu honetan baimena egokitzea soilik eskatu beharko da baldin eta sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarri diren biltegitratze- eta ontziratze-baldintzak aldatu beharra badakar.

Hondakinak biltegitratzeko eremuak edo eremuek lurzoru estankoa izango dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan edo oso bustita egoteagatik, hondakinok isuriak edo lixibatuak sor baditzakete,

bada, orduan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak izan beharko dira, gerta daitezkeen isuriak kanpora irten ez daitezen. Hautsezko hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak desagertu, galdu eta ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Azpeitiko Udalean.

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, 180/2015 Errege Dekretua (zeinaren bidez, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen baita) eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batetik lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 25.2 artikuluari jarraikiz.

Baldin eta hondakinak Estatutik kanpora esportatzen badira, hondakinen lekualdaketak direla-eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan ezarrita dagoena bete beharko da.

### B.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Hauek dira sustatzaileak aitortutako hondakin arriskutsuak:

HEZ	Hondakinaren deskripzioa	Kudeat zeko bidea	Biltegitratzeko modua	Sortze-prozesua	Zenbatetsi tako ekoizpena (kg/urte)
13 02 08	Olio hidrauliko erabiliak	R13/9	Metalezko bidoiak, 200 l-koak	Mantentze-lana	1.200
14 06 03*	Disolbatzaile erabili ez-halogenatua	R13	Bidoi metalikoa	Mantentze-lana	300
13 08 02*	Hidrokarburoak dituzten likido urtsuak (konpresoreen garbiketakoak)	R13	Bidoi metalikoa	Mantentze-lana	10
16 05 04*	Substantzia arriskutsuek kutsatutako aerosolak	R13	Kartoizko kutxa	Mantentze-lana	15 unitate
HEZ	Hondakinaren deskripzioa	Kudeat zeko bidea	Biltegitratzeko modua	Sortze-prozesua	Zenbatetsi tako ekoizpena (kg/urte)
15 01 10*	Substantzia arriskutsuek kutsatutako plastikozko ontziak	R13	Metalezko bidoiak, 200 l-koak	Mantentze-lana	10
15 01 10*	Substantzia arriskutsuek kutsatutako metalezko ontziak	R13	Metalezko bidoiak, 200 l-koak	Mantentze-lana	15
15 02 02*	Substantzia arriskutsuek zikindutako materiala	D15	Metalezko bidoiak, 200 l-koak	Mantentze-lana	20
20 01 21*	Hodi fluoreszenteak eta merkurioa duten lanparak	R13	Kartoizko kutxa	Mantentze-lana	200 unitate
08 01 11*	Pintura-hondarrak	R13	Jatorrizko metalezko bilgarria	Mantentze-lana	5
20 01 33*	Metal astunak dituzten pilak	R4		Bulegoa	2
20 01 35*	Ekipo informatiko erabiliak	R4		Bulegoa	5-10 unitate

a) Hondakin arriskutsu bakoitzari dagokion izendapena eta kodifikazioa hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta ezartzen da, eta horiei buruzko informazioa baimena izapidetzean jasotzen da. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarrikoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran zehar. Hondakina zer motatakoa den eta zer osagai arriskutsu dituen definitzen dute. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa egokia dela egiaztatzeko, eta bai Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskal Autonomia Erki-degoko IV. Ingurumeneko Esparru Programan (2015-2020) ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren onarpen-agirietan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskurapena edo balorizazioa kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen onarpen-agirietan lagatze- edo ezabatze-kodeak baliozkotzeko eskatzen bada.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, duten tipologia dela eta, isurketaren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketean kasuetan.

c) Hondakin arriskutsuak ontziratzeke, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira. Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta ontzikiek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak isurita edo lurrunduta gal ez daitezzen.

d) Hondakin arriskutsuak ezin izango dira sei hilabetetik gora eduki biltegian. Salbuespen-egoeretan, ingurumen-organok epe hori aldatu ahalko du, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta gizakion osasuna eta ingurumena babestuko dela bermatzen bada.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakin-kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena aurretiaz eginda dagoela, araudian zehaztutako moduan, identifikaziorako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Elmubas Ibérica SLk tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak edo haien baliokide diren agiri ofizialak erregistratu eta artxiboan gorde behar ditu, hiru urtez, gutxienez.

g) Egiaztatu beharko da baimendutako kudeatzailearen instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko garraioak betetzen dituela halako gaiak garraiatzeari buruzko indarreko legerian eskatutako betebeharrak.

h) Elmubas Ibérica SL enpresak Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko du bere enpresan erabilitako olioak.

i) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak– 110/2015 Errege Dekretuak, otsailaren 20koak, gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei

buruzkoak, xedatuaren arabera kudeatuko dira. Halaber, pilen eta metagailuen hondakinek bete beharko dute Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa. Kudeatzaile baimenduaren tratamendu-kontratua izateko, garraioaren aurretiko jakinarazpena egiteko eta identifikazio-agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, baita toki-erakundeei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudeatu ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei egindako emateak justifikatzeko agiriak hiru urtez gorde behar dira gutxienez.

j) Elmubas Ibérica SLk PCB eduki dezaketen gailuak dituenek, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan zehaztutako baldintzak (errege-dekretu haren bidez, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatze eta kudeatzeko neurriak ezartzen dira) eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1005/2009/EE Erregelamenduak, ozono-geruza agortzen duten substantzien gainean eman zuenak, adierazten dituen substantziak erabiltzen baditu, Elmubas Ibérica SLk berreskuratu egingo ditu, aldeek onetsitako bitarteko tekniko bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarri den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz; bestela, birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko ditu aparatuak berrikusteko edo mantentzeko eragiketetan, edo desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

l) Elmubas Ibérica SL enpresak urtero adierazi beharko du Ingurumen Sailburuordetzan ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegitratuta dauden hondakinen zerrenda. Datuekin batera, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programa ere bidaliko du.

m) Erregistro bat eramango da, eta bertan adieraziko dira kantitatea, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak, hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak.

n) Hondakin arriskutsuen kudeaketaren oinarritzko printzipioetako bat betetzeko –hau da, hondakin horiek ahalik eta gutxien sortzea–, urtean 10 tona hondakin arriskutsu baino gehiago sortuz gero, Elmubas Ibérica SLk hondakin arriskutsu gutxiago sortzeko plan bat aurkeztu beharko dio Ingurumen Sailburuordetza honi, lau urtetik behin, Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 17.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldin eta Lege horren garapenerako araubideak ez badu hondakin arriskutsuen ekoizle txiki gisa katalogatzen Elmubas Ibérica SL.

o) Baldin eta Ontziei eta ontzien hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehenengo xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritza- edo industria-ontzi baten azken jabea bada Elmubas Ibérica SL, bera izango da ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

p) Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko den irailaren 25eko 183/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, atal honetako f) eta g) letretan aipatutako dokumentuak –kudeatzaileak EAEkoak direnean– eta m) eta n) letretan aipatutakoak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, transakzio elektronikoko IKS-eeM sistemako erakundeak bertsioa erabiliz.

q) Amiantoaren duten hondakinak daudela ikusiz gero, Elmubas Ibérica SLk bete beharko ditu Amiantoaren ingurumenaren sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako eskakizunak. Horrez gain, amiantoaren duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxienezko baldintzak.

### B.3.2.– Hondakin arriskugabeak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskugabeak hauek dira:

Hondakinaren izena	HEZ kodea	Dagokion prozesua	Zenbatetsitako ekoizpena (t/urtean)
Lehengai-hondakinen nahastea	160306	Pentsu-produkzioa	21,5
Landare-olio eta -koipeak	200125	Mantentze-lana	1,5
Papera eta kartoia	150101	Pentsu-produkzioa	50
Plastikoak eta bilgarriak	150102	Pentsu-produkzioa	100
Zura	150103	Pentsu-produkzioa	10
Txatarrak	200140	Mantentze-lana	75
Tonerra	080318	Bulegoa	unean unekoa

a) Hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei dagokienez bigarren apartatuko B.3.1 azpiapartatua xedatutakoaren arabera, hondakinak baliarazi egin beharko dira, eta balorizatzaile baimendun bati eraman beharko zaizkio horretarako. Hondakinak kasu honetan baino ezingo dira deuseztatu: ezinezkoa izatea horiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik. Beti egiaztatu beharko da hori horrela dela. Justifikazio tekniko hori baliagarria izan dadin, delako hondakina hartzeko baimena duten hiru kudeatzailek balorizatzeari uko egiten diotela frogatu beharko da.

b) Erabilitako ontziak eta ontzien hondakinak materialen arabera egoki bereizita entregatu beharko zaizkio agente ekonomiko (hornitzaile) bati, berrerabiliak izan daitezten, ontzi erabilien kasuan; edota berreskuratzaile, birziklatzaile edo balorizatzaile baimendu bati, ontzien hondakinen kasuan.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegitratuta eduki; hondakinen azken helburua balorizatzea denean, berriz, 2 urtez gorde ahal izango dira.

d) Oro har, ebakatu aurretik hondakin guztiek izan beharko dute kudeatzaile baimendu batek emandako tratamendu-kontratua, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Hala badagokio, arazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Elmubas Ibérica SLk tratamendu-kontratuak edo agiri ofizial baliokideak erregistratu eta artxibategian gorde beharko ditu, nahitaezkoak badira, hiru urtez gutxienez.

e) Hondakina zabortegean biltegitratuz gero, hondakin arriskugabea eraman aurretik identifikazio-agiria bete beharra egongo da, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa (dekretu haren bidez arautu zen hondakinak hondakindegian biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea).

f) Balorizatzeko edo ezabatzeko helburuarekin, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legearen (uztailaren 28ko 22/2011) 25.2 artikulua araber.

g) Baldin eta Elmubas Ibérica SL ontziei eta ontzien hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen Lehen Xedapen Gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengatik eskuratutako merkataritarako edo industriarako ontzi baten azken jabea bada, ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna da, eta, beraz, ontzi hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati eman beharko dio.

h) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek jasoko dituen: kantitatea, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodoak eta tokiak, hondakinen sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtean behin, kontrol-erregistro horren kopia bat eta dagokion ingurumena zaintzeko programa –dagokion urtekoa– bidali beharko dira Ingurumen Sailburuordetzara.

i) Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko den irailaren 25eko 183/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, atal honetako d), e) letretan aipatutako dokumentuak –kudeatzaileak EAEkoak direnean– eta f) letran aipatutakoak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, transakzio elektronikoko IKS-eeM sistemako erakundeak bertsioa erabiliz.

#### B.4.– Ontziak merkaturatzea.

Elmubas Ibérica SL enpresak, bere produktuak merkaturatzeko ontziak eta enbalajeak erabiltzen dituen enpresa den aldetik, ontzi horien gaineko informazioa eman beharko du urtero, martxoaren 31 baino lehen; horretarako, ontzien gaineko urteko adierazpena egin beharko du. Datuekin batera, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programa ere bidaliko du.

Era berean, Elmubas Ibérica SL enpresak derrigorrez ezarri beharko du ontzi erabiliak eta ontzi-hondakinak kudeatzeko biltegitratze- eta itzultze-sistema bat (zuzenean edo kudeaketa-sistema integratu bati atxikita). Elmubas Ibérica SL enpresak, bere produktuak merkaturatzeko industria- edo merkataritza-ontziak erabiltzen baditu, aipatu betebeharrak horretatik salbuesteko eskatu ahal du, Ontzi eta ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian araututakoari atxikitzen bazaio; atxikimendu horren bidez, ontzi horiek kudeatzeko eta ingurumen-organoari informazioa pasatzeko betebeharra produktuaren kontsumitzaileari transferitzen zaio.

Baldin eta Elmubas Ibérica SL enpresak, urte natural batean zehar, ontziratutako produktuak merkaturatzen baditu edo, kasua bada, hondakinak sor ditzaketen industria- edo merkataritza-ontziak merkaturatzen baditu kantitate hauetan baino handiagoetan:

- 250 tona, beira soilik bada.
- 50 tona, altzairua soilik bada.
- 30 tona, aluminioa soilik bada.
- 21 tona, plastikoa soilik bada.
- 16 tona, zura soilik bada.
- 14 tona, kartoia edo material konposatuak soilik badira.



– 350 tona, hainbat material badira eta, banaka, bakoitzak aurreko kopuruak gainditzen ez baditu.

Enpresaren Prebentzio Plan bat egin beharko du. Plan horrek hiru urteko iraunaldia izango du, eta onartutako Enpresaren Prebentzio Planaren kontrol- eta jarraipen-txostena egin beharko zaio urtero, martxoaren 31 baino lehen. Dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko dira bi agiriok.

B.5.– Lurzorua eta lurpeko urak babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako aginduak betetzeko aurkeztutako lurzoruaren egoerari buruzko aurretiazko txostenaren gomendioekin bat etorritz, Elmubas Ibérica SLk lurzorua babesteko behar diren neurriak hartu beharko ditu.

Lurzoruaren egoerari buruzko aurretiazko txostena hamabostean behin eguneratuko da, lurzoru kutsa dezaketen jarduerak egin zirelako iraganean eta urtean 10 tona substantzia arriskutsu baino gehiago erabiltzen direlako (9/2005 Errege Dekretua, 3. artikulua).

Nolanahi ere, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena lortzeko prozedura hasteko eskatu beharko dio sustatzaileak ingurumen-organoari, baldin eta ekainaren 25eko 4/2015 Legean adierazitako inguruabarren bat gertatzen bada.

Instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez, sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu:

1.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurrak mugitzea dakarren aldaketa bat aurreikusiz gero:

a) Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikulua 1c letrarekin bat etorritz, hondeatu beharreko materialak (lurra, obra-hondakinak, eta abar) karakterizatu beharko ditu jardueraren sustatzaileak, jardun kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa-modu egokiena zehaztearen.

b) Hondeaketa horretan hondeatutako materialek 500 m<sup>3</sup> gainditzen badituzte, sustatzaileak gaikako hondeaketa-plan bat aurkeztu beharko du; planak 13. artikuluan adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organoak onartu behar du plan hori, betetzen hasi aurretik.

c) Hondeatu beharrekoa 500 m<sup>3</sup> baino gutxiago bada, aldaketa-eskaerak informazio hau eman beharko du: non dagoen kokatuta, zenbat hondeatu behar den, aurreikusitako hasiera-eguna, kontratista, jarraipenaren eta kudeaketaren ardura izango duen erakundea.

d) Aurreko kasu horietan guztietan, hondeatzen amaitutakoan, hondeatutako materialak zuzen berrerabili edo kudeatu direla ziurtatzen duen txosten bat aurkeztu beharko zaio ingurumen-organoari, behar bezala karakterizatu aurretik.

e) Orokorrean, irizpide hauek beteko dira:

– Soberakinak hondakindegian biltegitratuz hustu nahi izanez gero, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan (hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena) ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, lagin baten azterketa egin beharko da. Laginak hondakindegian kudeatu beharreko soberakinen 500 m<sup>3</sup> bakoitzeko 10 azpilagin izango ditu gutxienez, baina hori aldatu ahal izango da espero daitekeen kutsaduraren heterogeneotasunaren eta homogeneotasunaren arabera. Afekzioa homogeneoa

izango dela aurreikusten den kasuetan, 500 m<sup>3</sup>-ko bolumena baino bolumen handiagoa duten unitateez osatutako lagin konposatua hartu ahal izango da; eta, aldiz, afekzio heterogeneoaren kasuan, 500 m<sup>3</sup>-ko bolumena baino bolumen txikiagoa duten unitateez osatutakoa.

– Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako VIE-B (industria-erabilera) balioaren azpitikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarburo-edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, erakunde egiaztatu batek egin beharko ditu laginketa eta azterketa, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren arabera (dekretu horren bidez, lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeke sistema ezartzen da, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dira).

– Ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutako VIE-A ebaluazioko balio adierazleak eta TPH direlakoetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurrak lur garbitzat hartuko dira, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelan batean.

– Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahalko da. Lurzoru naturalaren pareko den harrizko substratu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

2.– Baldin eta aurreikusten bada lur-mugimendua dakarren aldaketaren bat egingo dela instalazioa baimenduta dagoen lurzatitik kanpo (lurzoru berria okupatuz) eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 1. eranskinean aipatzen den jardueraren bat, sustatzaileak lurzoru-gaiei buruzko adierazpen bat lortu beharko du, egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

Era berean, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikulua 2. apartatuaren arabera, lurra- ren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek ezar ditzan hartu beharreko neurriak, aipatu- tako 4/2015 Legearen 23. artikulua 1.e zenbakiari jarraikiz betiere.

B.6.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Ondorengo indize akustikoak gaindi ez daitezzen beharrezko neurri guztiak ezarriko dira:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzan barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitar- tean, leiho eta atek itxita, ezta LAmaz indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzan barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 07:00ak bitar- tean, leiho eta atek itxita, ezta LAmaz indizeak 35 dB(A) ere.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4m-ko garaieran neurtuta (egoera berezietan izan ezik, horietan apantailamenduak saihesteko beharrezko garaiera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

## 1. taula. Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituren eskatutako zarata-mailak.

Zarata-indizea	dB(A)
L <sub>d</sub>	75
L <sub>e</sub>	75
L <sub>n</sub>	65

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan (LAeq,d, LAeq,e eta LAeq,n) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gaindituko.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (LAeq,Ti). Ti jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-etan gaindituko.

b) Zamaletan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handiagoko guneeetako zarata-maila.

## E) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta honako atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

## E.1.– Igorpen atmosferikoak kontrolatzea.

## E.1.1.– Kanpoko kontrolak.

a) Elmubas Ibérica SL enpresak igorpenak kontrolatu beharko ditu, informazio honen arabera:

Fokua	Fokua izena	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Metodoak
1	Galdara nagusia (SINCAL)	CO	Hiru urtez behin	IT-02: Igorpenen kontrola
		NOx (NO <sub>2</sub> )		
2	Lehorgailuen tximinia	Usaina	Urtekoa	UNE-EN 13725
3	Eho aurretik erauztea	Partikulak guztira	Hiru urtez behin	UNE-EN 13284-1
4	Errotetik erauztea 1	Partikulak guztira		UNE-EN 13284-1
5	Errotetik erauztea 2	Partikulak guztira		UNE-EN 13284-1
6	Errotetik erauztea 3	Partikulak guztira		UNE-EN 13284-1
7	Errotetik erauztea 4	Partikulak guztira		UNE-EN 13284-1
9	Estrusio-makina ertainaren (Biki) hozkailua 1	Usaina	Hiru urtez behin	UNE-EN 13725
10	Estrusio-makina ertainaren (Biki) hozkailua 1	Usaina	Hiru urtez behin	UNE-EN 13725
14	Haizatze koipeduna	Usaina	Hiru urtez behin	UNE-EN 13725

\* 1042/2017 Errege Dekretuaren arabera, karbono monoxidoa neurtzen jarraitu beharko da, are 2024ko eta 2029ko abenduaren 31n igorpenen muga-balioetatik urrun egonda ere, B.1.3 azpia-partatua aipatu den legeaz.

b) Puntu honetako a) letran aipatutako neurketa guztiak Administrazioaren II. mailako Ingurumen Lankidetzako Erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, 212/2012 Dekretuan, urriaren 16koan, ezarritakoari jarraituz, eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, bereziki honako gai hauei dagokienez: helburua eta neurketa-plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa-kopurua eta banakako neurketa bakoitzaren iraupena, eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

c) Halaber, a) letran azaldutako igorpen-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batezbesteko maiztasunarekin funtzionatzen badu, igorpen bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, edo, bestela, edozelako maiztasunarekin, igorpenaren iraupen globala instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, betiere kontrolatik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori urteko ingurumena zaintzeko programan, dagokion urtekoan, justifikatu beharko da.

#### E.1.2.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, honako xedapen hauetan ezarritakoari jarraituz, betiere: 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua (100/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarrizko xedapenak finkatzen dituena) eta 278/2011 Dekretuaren III. eranskina (278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzen dituena).

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

#### E.2.– Saneamendu-sarera isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, analitika hauek egingo dira:

Isurgunea	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxatilaren UTM koordinatuak	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
PV1	Ur sanitarioak	30T 560668 4780030	pH-a, eroankortasuna, kolorea, tentsioaktibo anionikoak, solido esekiak, olioak eta koipeak, OEB <sub>5</sub> , OEK, nitrogeno amoniakala eta fosforoa guztira.	Urtekoa	Kanpoko ILE batek

b) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldian egingo dira beti.

c) Isuriak baimenaren baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, baldin eta puntu honetako a) letran ezarritako kontrol-parametro guztiak betetzen badituzte ebazpen honen bigarren idatzi-zatiko B.2.3 azpiapartatuan ezarritako mugak.

d) Egindako kontrolen emaitzak Gipuzkoako Uren partzuergoari bidaliko zaizkio hilabeteko epean, laginak hartu direnetik hasita, eta ingurumena zaintzeko programari atxikiko zaizkio, ebazpen honen E6 azpiapartatuko bigarren apartatuaren arabera. Gainera, Gipuzkoako Ur Partzuergoak egindako analitiken emaitzak atxikiko zaizkio ingurumena zaintzeko programari, eta Elmubas Ibérica SLri jakinaraziko zaizkio.

## E.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro-adierazleen segimendua egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko, eta urtean urteko ingurumen-zaintzako programekin batera aurkeztuko du.

Ingurumen-gaia	Abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
Ekoizpena	Ekoizpena, guztira	t	Ekoizpena, guztira	t	urtean
Material-kontsumoa	Animalia-lehengaiak	t	Animalia-lehengaiak/Ekoizpena, guztira	%	urtean
	Landare-lehengaiak		Landare-lehengaiak/Ekoizpena, guztira		
Energia-kontsumoa	Gas-kontsumoa, elektrizitate-kontsumoa eta gasolio-kontsumoa	kWh	Kontsumitutako energia guztira = Gas-kontsumoa + elektrizitate-kontsumoa + gasolio-kontsumoa	kWh	
			Gas-kontsumoa/Guztizko ekoizpena	kWh/t	urtean
			Gas-kontsumoa/Kontsumitutako energia guztira	% (Kwh/Kwh)	urtean
			Elektrizitate-kontsumoa/ekoizpena guztira	kWh/t	urtean
			Elektrizitate-kontsumoa/Kontsumitutako energia guztira	% (Kwh/Kwh)	urtean
Ur-kontsumoa	Harguneko ur-kontsumoa/sareko ur-kontsumoa	m <sup>3</sup>	Ur-kontsumoa guztira = Harguneko ur-kontsumoa + Sareko ur-kontsumoa	m <sup>3</sup>	urtean
			Harguneko ur-proporzioa = Harguneko ur-kontsumoa / Ur-kontsumoa guztira	% (m <sup>3</sup> / m <sup>3</sup> )	urtean
			Ur-kontsumoa guztira/Ekoizpenaren guztizkoa	m <sup>3</sup> /t	urtean
Isuriak uretara	1. isuria:	m <sup>3</sup>	1. isuria/ Ekoizpena, guztira	m <sup>3</sup> /t	urtean
Igorpen atmosferikoak	Igorpen-tasak, fokuen arabera: F2, F9, F10 eta F14	Uo <sub>e</sub> /s	Usain-igorpenaren tasa guztira = igorpen-tasen batura (F2, F9, F10 eta F14)	Uo <sub>e</sub> /s	urtean
Hondakinak	Sortutako hondakin arriskutsuak	t	Sortutako hondakinak guztira = Sortutako hondakin arriskutsuak + Sortutako hondakin arriskugabeak	t	urtean
	Sortutako hondakin arriskugabeak	t			
			Sortutako hondakinak guztira/Ekoizpena guztira	t/t	urtean
	Hondakin arriskutsu balorizatuak	t	Hondakin arriskutsu balorizatuak / Sortutako hondakin arriskutsuak	%	urtean
	Hondakin arriskugabe balorizatuak	t	Hondakin arriskugabe balorizatuak / Sortutako hondakin arriskugabeak	%	urtean
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako jazoera kopurua (zehaztu ingurune hartzailea: airea, ura, lurzoria)	Kopurua, urtean	Ustekabeko isurketekin lotutako jazoera kopurua	Kopurua, urtean	urtean
Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS)	Ezarritako eta ziurtatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	BAI/EZ Zein/urte	Ekoscan/ urtea edo ISO14001/ urtea edo Emas/ urtea	Bai/Ez Zein/urte	urtean

## E.4.– Zarata kontrolatzea.

a) Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira hiru urterik behin:  $L_d$ ,  $L_e$ ,  $L_n$ ,  $L_{Aeq}$ ,  $T_i$  eta  $L_{Aeq,60}$  segundo. Lehenengo kontrol-urtean lortutako emaitzen arabera, ordutik aurrera neurketak beste maiztasun batekin egitea erabaki ahal izango da.

b) Aurreko apartatuan adierazitako ebaluazio guztiak akustikaren esparruan laginketa espazial eta tenporala egiteko UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera ziurtagiri bat duen ingurumeneko erakunde laguntzaile batek egin beharko ditu. Nolanahi ere, ingurumen organoak ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

#### E.5.– Lurzoruaren eta lurpeko uren kontrola.

Bost urtez behin, ebazpen hau jasotzen denetik hasita, eguneratu egin beharko da lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiatzko txostena, eta instalazio guztiei dagokien kutsadura-arriskuaren ebaluazio bat erantsiko zaio. Txosten hori Ingurumena Zaintzeko Programarekin –dagokion urtekoarekin– batera bidaliko da.

#### E.6.– Emaitzak kontrolatu eta igortzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta analisisien emaitzak behar bezala erregistratu behar dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, Ingurumen, Lurralde Plan-gintza eta Etxebizitza Sailaren webguneko bidalketa-prozedura telematikoari jarraikiz:

<https://www.euskadi.eus/y22-home/eu>

Era horretan, aipatutako programak zehaztutako aldiaren egiten diren kontrol guztiak, ibilgura edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, Ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren. Ezarritako baldintzak betetzen ez badira, orduantxe bakarrik egin beharko da komunikazioa ingurumen-baimen bateratuan ezarritakoaren arabera. Era berean, urtebete baino aldizkakotasun handiagoko kontrolik egiten bada, kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez da igorriko.

Emaiza horiek urtero igorriko dira, betiere martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintzeko programaren emaitzekin batera. Txosten horretan, babes- eta zuzenketa-neurrien funtzionamendua, prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak eta emaitzen analisia jasoko dira, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien kausa eta konponbideak; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aldeztatik egin ez bada.

#### E.7.– Ingurumena Zaintzeko Programaren Agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina prestatu beharko du, eta bertan bildu beharko ditu aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak. Honako hauek zehaztu beharko ditu programa horrek: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen zehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearen ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

F) Ezohiko egoeretan, kutsadurari aurre hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

F.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko lanak eta programatutako mantentze-lanak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du sustatzaileak, eta dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzekoa ere bai.

Instalazioa geldiaraztean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak kudeatu beharko dira, bigarren ataleko B.3 azpiapartatuan ezarritakoarekin bat etorritik. «Instalazioan ekoiztako hondakinen kudeaketa zuzena bermatzeko baldintzak» jarraitu beharko da, baina ez da beharrezkoa izango hondakin horiek baimendutako hondakinen zerrendan jasota egotea.

#### F.2.– Jarduera uztea.

Jarduera bertan behera utzi baino lehen, Elmubas Ibérica SLk instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, ebazpen honen bigarren apartatuaren B.3 azpiapartatuan ezarritakoarekin bat etorritik.

#### F.3.– Jarduera aldi baterako etetea.

Jarduera aldi baterako uztea eskatuz gero, 815/2013 Errege Dekretuaren 13. artikuluan arautu bezala, Elmubas Ibérica SLk, aldi baterako uztearen eskabidearekin batera, agiri bat bidali beharko du lantegia jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen integratuko kontrolak eta baldintzak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, instalazioa berriz abiarazi baino lehen, instalazioen funtzionamendu ona ziurtatu beharko da, ingurumenen eragina izan dezakeen isurketa edo emisio oro saihesteko.

#### F.4.– Jarduera anomaloa izanez gero aplikatu beharreko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

##### a) Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo isuriak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: erakuntzako materialak (iragazgaitasuna), biltegitratzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, lantegiko biltodi-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko isuriak biltzeko sistemak.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, tangen barnealdearen ikuskapen bisualak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

Era berean, atmosfera eta ura kutsatzea prebenitzeko eta kutsatutakoa zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, etab.) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipamenduen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Pabilioen barruan zolak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Debekatutako substantzia isurtzeko berehalako arriskua balego, horren berri urgentziaz emango dio erabiltzaileak Gipuzkoako Uren Partzuergoari, hark instalazioak babesteko neurri egokiak har ditzan.

b) Halaber, erregistro bat eduki behar da, non jaso beharko baitira aldizka egindako mantentze-lanak eta antzemandako gorabeherak.

c) Erabilitako olioak, efluenteen arazketako hondakinak, besteak beste, eta orokorrean, lantegian sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lurzatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

e) Hauts-itxurako produktuak biltegitzeko, silo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabilioi estali eta itxiak eduki beharko dira.

e) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak, ingurunean ez sakabanaizteko moduan biltegitratuko dira.

f) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitratzeko instalazio horiek bete egin beharko dituzte produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak.

g) Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta efikaziaz esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kantitate nahikoan: berriro ontziratzeke erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontzia, hesiak eta kaltetutako ingurunean isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta norbera babesteko ekipo bereziak.

h) Tangen hustuketa kontrolatzeko balio duen protokoloa edo prozedura edukiko dute. Eta saihestu egin beharko da efikaziari eragin diezazkieten isuriak tratamendu-plantara joatea.

i) Gorabeheraren bat gertatuz gero, agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabeheraren edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, sustatzaileak, berehala, gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, gertatu dena zuzentzeko edo eusteko neurri egokiak hartu ondoren betiere. Komunikazioan alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Jatorriak eta kausak (unean zehaztu daitezkeenak).
- Zuzentzeko edo eusteko neurriak, berehala aplikatu direnak.
- Sortutako ondorioak.
- Epe laburrera aurreikusitako jarduketak, halakorik balego.

Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS DEIAK eta Azpeitiko Udala berehala jakinaren gainean jarri behar dira. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuaren ondorioz sortutako egoera zehaztasunez jasotzen duen txosten bat bidali beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:



- Gorabehera mota.
- Gorabehera non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Gorabeheraren iraupena.
- Ustekabeko isurketa izanez gero, emaria, isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisia barne hartuta.
- Mugak gaindituz gero, igorpenei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Anomalia berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketa gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen oreka modu larrian kaltetu badezake, titularrak berehala etengo du isurketa hori eta, horrez gain, gertaeraren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Uraren Euskal Agentziari eta Babes Zibilean zein ingurumenaren arloan ardurak dituzten erakundeei, baita SOS DEIAK (112) Larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

j) Aurreko letran ezarritakoari kalterik egin gabe, gerta daitezkeen gorabeherak edo arazoak saiheste aldera, jardueraren titularrak berehala jakinarazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari instalazioko edozein etenaldi programatu, etengabeko prozesu bati badagokio, baita aurreikusitako mantentze prebentiboak ere, betiere ahalik eta aurrerapen handienarekin.

k) Larrialdi-egoeretan babes zibilari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko da, eta araudi horretan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.

G) Baldin eta araudi berria indarrean jartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitea gomendatzen badute, babes- zein zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu egin daiteke jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

H) Urtean behin, martxoaren 31 baino lehenago, Elmubas Ibérica SLk aurreko urtean atmosferara eta uretara egindako igorpenei eta isurketei, eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Ingurumen Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, 508/2007 Errege Dekretuarekin eta Ingurumena Zaintzeko Programarekin bat etorrituz.

Informazio hori IKS-eeM sistemaren erakundeentzako bertsioaren bidez transmitituko da ([www.eper-euskadi.net](http://www.eper-euskadi.net) webgunean eskuragarri); hau da, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Ingurumen Informazioa Kudeatzeko Sistemaren bidez.

Datu horietako batzuek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, datuak Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko, E-PRTR-Europa erregistrora, alegia.

Ingurumen-adierazpena agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorritik. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horretaz gainera, une oro bermatu beharko da Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betetzen dela.

I) Instalazioetan aldaketarik egin ahal izateko, alde zuzenetik honako helbide elektronikoa honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da:

[http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3252/eu/contenidos/informacion/ippc/eu\\_6939/adjuntos/cuestionario\\_modificaciones.doc](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3252/eu/contenidos/informacion/ippc/eu_6939/adjuntos/cuestionario_modificaciones.doc)

Erakunde honen onspena ere beharko da, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Industriako Igorpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikulua ezartzen ditu aldaketa funtsezkotzat jotzeko irizpideak.

Nolanahi ere, aipatutako 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan zehaztutakoarekin bat etorritik, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorritik.

Era berean, proiektua aldatzen den kasuetan, aplikatzekoa izango da Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c eta 7.2.c artikuluetan xedatutakoa.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa gauzatu aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko da, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

J) Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 31. artikuluan jarraituz, eta aipatutako legearen 32. artikuluan jasotako zigorrak ezartzea ekar dezake.

Hirugarrena.— 16-I-01-00000000335 erregistro-kodea esleitzea Elmubas Ibérica SLk Azpeitiko Gerraxiki kalean (6), E-20730, ustiatutako instalazioari. Hona hemen kokapena: UTM (ETRS89) 30T, X: 560710, Y: 4780030, Z: 94 m.

Laugarrena.— Ingurumen-baimen integratuaren berrikuspenera ofizioz egingo da kasu hauetan:

a) Instalazioak sortutako kutsadura dela eta, finkatutako igorpenen muga-balioak berrikustea edo beste batzuk ezartzea komeni bada.

b) Igorpenak nabarmen murriz badaitezke, teknika erabilgarri onenetan aldaketa handiak egiteko gehiegizko kostuak ezarri gabe.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela eta beste teknika batzuk erabili behar badira.

d) Arroko erakundeak, urei buruzko legedian xedatutakoaren arabera, uste badu ingurumen-baimen integratua berrikustea edo aldatzea justifikatzen duten inguruabarrak daudela, Estatuko Administrazio Orokorrak kudeaturiko arroetako jabari publiko hidraulikora egindako isuriei dagokienez. Kasu horretan, arroko erakundeak, txosten lotesle bidez, organo eskudunera joko du ingurumen-baimen integratua eman dezan, gehienez ere hogei eguneko epean berrikuste-prozesua hasteko.

e) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legediak hala eskatzen badu, edo Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 22.3 artikuluari jarraikiz, ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea beharrezkoa bada.

f) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen bada.

g) Ingurunearen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza garrantzitsu berrietara egokitze beharra ikusten bada; bereziki, inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela hautematen bada.

h) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharren arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako babes-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak akastunak direla egiaztatzen bada.

i) Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakietan ezarritakoarekin bat etorritz egindako azterketa eginda, aldatu egin behar dela ondorioztatzen bada.

Ingurumen-baimen integratua berrikusteak ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, hala ezarrita baitago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26.5 artikuluan.

Bosgarrena.– Elmubas Ibérica SLri eskatzea erantzun bat eman diezaiela honako gai hauei:

Ebazpen hau eman eta ondorengo hiru hileetan:

Kontrol-kutxatila bat edo gehiago eraikiko dira saneamendu-sare orokorreko hargunearen aurretik; kutxatila horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango dituzte, Gipuzkoako Ur Partzuergoaren jarraibideen arabera. Kutxatilak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

– Lurzorua babesteko neurri zuzentzaileen ekintza-plana, aurkeztutako Egoerari buruzko aurretiazko txostenaren arabera.

– Zaratari aurre egiteko neurri zuzentzaileen proposamena, batik bat, gauerako.

– Kudeatzaile baimenduari ematen zaizkion sortutako hondakinak behar bezala identifikatu eta sailkatzen direla justifikatu beharko du, bereziki hondakin arriskutsuen izaerari eta arrisku-ezaugarriei dagokienez, betiere honako zerrenda honetan ezarritako irizpideekin bat etorritz: Europako Hondakin Zerrenda, 2014ko abenduaren 18ko Batzordearen Erabakiz argitaratua, zeinaren bidez aldatu egiten baita hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; eta 1357/2014/EB Erregelamendua, Batzordearena, 2014ko abenduaren 18koa, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (zuzentarau hori hondakinei buruzkoa da eta zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen). Hori egiaztatu ondoren, eguneratu egingo dira baimen honetan jasota eta izapidetzeko orduan indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena.

Ebazpen hau eman eta ondorengo sei hileetan:

- Ezarritako fokuentzako igorpenen lehen kontrola.
- Ontziak murrizteko enpresa-plana.

Seigarrena.– Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 5.d) artikuluan xedatutakoarekin bat, lagun egiteko animalientzako pentsua fabrikatzeko jarduerari dagokionez, zeina ebazpen honen xede baita, gerta litekeen titulartasun-aldaketa oro jakinarazi beharko dio Elmubas Ibérica SLk Ingurumen Sailburuordetzari, azken horrek onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du honako hauek gertatzen direnean:

- Epean ez egiaztatzea ebazpen honen bosgarren apartatuan ezarritako baldintzak betetzen direla, non eta interesdunak ez duen behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen.
- Elmubas Ibérica SL enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

Zortzigarrena.– Hauek dira titularrak bere jarduera garatzean erabiliko dituen identifikazio-kodeak:

- 2000078877 motako hondakin arriskugabeak sortzea.

Bederatzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Elmubas Ibérica SL enpresari, Azpeitiko Udalari, ingurumen-baimen integratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsioa aurkez daiteke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburu jaunari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta hurrengoetan xedatutakoari jarraikiz.

En Vitoria-Gasteiz, 2018ko abuztuaren 3a.

Ingurumeneko sailburuordea,  
MARIA ELENA MORENO ZALDIBAR.

Absentzia dela eta (77/2017 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarria).

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,  
IVAN PEDREIRA LANCHAS.